

# Otegi: «Aliantza politika aldatu eta PSEri tokitxo bat egiteko gogo dago EAJn»

Udal itunak apurtzeak iraganera itzultzea ekarriko luke EHko kidearen ustez

Erredakzioa / Donostia

EAJren baitan aliantza politika aldatu eta atzera egiteko gogo dagoela iritzi dio Arnaldo Otegi, bide horretan PSE-EERI tokia eginez. Bestetik EHrekin eginiko udal ituna apurtzea atzera egitea litzateke bere ustez, «horrek ez baitu ezer konponduko». EAJk itun horien inguruko eztabaidarekin benetako eztabaida desbideratu nahi duela azaldu zuen, eta eztabaida hori trantsizio proposamenaren ingurukoa dela.

EGOERA politikoaz mintzatu zen atzo Arnaldo Otegi EHko buruzagia ETBko El Punto saioan. Aurrera begira alderdi bakoitzak zein apustu egin nahi duen definitzea beharrezkoa da Otegiaren ustez. Beste marko berri baterako bidea egiteko prest dauden edo estatutuaren bidean jarraitzeko asmoa duten argitu behar dutela esan zuen. EAJren baitan Gasteizen aliantza politika aldatu eta atzera egiteko gogo dagoela iruditzen zaio Otegi, «PSE-EERI tokitxo bat eginez. Eta PSE-EEK bi urteotan prozesua lehertarazteko saioa baino ez du egin». Hori horrela baldin bada argi esateko eskatu zion EAJri.

EHk PSE-EEren baitan ez duela aparteko aldaketarik sumatu esan zuen, PSE-EEK orain arte bezala Konstituzioa eta Estatutua onartu behar direla esaten jarraitzen du. Elkarriketa mahaien inguruan ere, orain EAEn mahai bat osatzeari buruz hitz egitea ere ez duela ulertzen esan zuen Otegi. «Lizarran Euskal Herriko gehiengo politiko eta soziala biltzen delako, eta EAEn mahai bat osatuz gero PP ez egoteaz gain Lizarran dauden batzuk kanpoan geratuko lirakeelako».

## Udal itunak

Udal itunak apurtzeko arriskuari buruz Arnaldo Otegi adierazi zuen arazo hori ez dela oraingoa. Orain dela urtebete itun instituzional orokorra sinatzea proposatu zutela eta zailtasun handiak izan zituztela ekarri zuen gogora. Itunak lortzea lan



Arnaldo Otegi artxiboko argazki batean.

handia izan zela azaldu zuen eta orain «lehertarazi» egin nahi dituztela. Itun horiek apurtzeko arrazoia ez da gestio txarra Otegi azaldu zuenez, «EAJren erabaki politikoa baizik».

Akordioak apurtzeak ez du ezer konponduko Otegiaren irudiko, «gauzak okertu besterik ez du egingo». Are gehia-

go, iraganera itzultzea izango litzatekeela azaldu zuen. Bere ustez Madrilek ez du EAJ eta EArenanako presioa gutxituko EHrekiko itun horiek apurtu arren.

Hala ere, benetako eztabaida ez da itun horien apurketa Otegiaren iritzi. Hala, duela hilabete bat baino gehiago ezker abertzaleak egungo

markotik beste marko politiko baterako trantsizio proposamena aurkeztu zuela orotarazi zuen. EAJ ere bere ekarpena egin du Otegi esan zuenez, baina EAJk ez du inolako proposamenik aurkeztu. Bere ustez benetako eztabaida hor dago. «EAJk egungo markoa gainditu nahi duen esan behar du»



## Pintadak agertu dira LABen Jaurilaritzako egoitzan.

Gasteizen, Eusko Jaurilaritzaren egoitzan LABek duen bulegoan mehatzuzko pintadak agertu dira aipatu sindikatuak atzo salatu zuenez. LABen kontrako irainak egiteaz gain heriotza zigorra eskatzen da pintada horietan. LABek salaketa jarri du gertaera horrengatik eta ikerketa bat egiteko eskatu dio Jaurilaritzari, egileak nor izan diren argitzeke. Izan ere, asteburuan egin dituzte pintada horiek eta Lakuako egoitza asteburutan itxita eta segurtasunaz arduratzaren diren pertsona batzuren esku egoten da.

## Entzutegi Nazionalak Olanok azken urtean egin adierazpen guztiak aztertuko ditu

«Mehatxu terroristengatik» duen kereilagatik egingo du epaileak ikerketa hori

Agentziak / Madril

ISMAEL MORENO Entzutegi Nazionalako instrukzio epaileak Amnistiaren Aldeko Batzordeetako bozeramaile Juan Mari Olanok azken urtean egin dako adierazpen guztiak aztertzea erabaki du, fiskalak hala eskatuta. Fiskalak eskatuta ireki zen Olanoren kontrako ikerketa ere, Juan Maria Pedrosa PPko zinegotziaren hilketaren ostean «mehatxu terroristak» egin zituela leporatu baitzion hark. Gogoratu, Olanok prentsaurreko batean adierazi zuela, euskal presoaren egoeraren errudunak zeintzuk diren esaten jarraituko zutela.

Ildo horretan egindako adierazpen guztiak bidaltzeko eskatu die, beraz, epaileak komunikabideei. «Batez ere ETaren ekintza terroristen jomuga izan daitezkeen pertsonen buruzko erreferentzia egiten badu, zuzenean nahiz zeharka», dio epailearen ebazpenak.

## 'Monbar auziko' herri akusazioak proba berriak egiteko eskatu dio epaileari

Europa Press / Madril

SUMARIOA amaitu aurretik eginbide gehiago egiteko eskatu dio Monbar auziko herri akusazioak Baltasar Garzon Espainiako Entzutegi Nazionalako epaileari.

Akusazioak eskatu du Frugoli eta Mattei atentatuaren egile materialak Donostiako Orly Hotelean egon ote ziren agertzen duen txostena aurkezteko, ustez han lo egin baitzuten 1985eko irailaren 23a eta 26a bitartean. Bere garaian galdeketa hori egin ez bazen orain egiteko ere eskatzen du.

Fiskalak sumarioa amaitzeko eskatu zuen, ondoren behin betiko itxeko eskatzeko.